


# EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. MARTXOA



2025									2026		
Apr.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abuzt.	Iraila	Urria	Azar.	Aben.	Urtar.	Otsai.	Mart.
93,5	95,1	99,3	103,0	102,7	103,1	103,8	107,6	104,2	109,3	104,1	100,6

Euskal ekonomiaren termometroa 100,6koa izan zen martxoan, eta hazkunde sendoaren behe-mugaren ingururaino jaitsi zen. Hileko bilakaerak, berriz ere, kanpo merkataritzaren ekarpen ahula islatzen du, esportazioek eta industriak atzera egin baitute, energia prezioen inguruko ziurgabetasunak markatutako testuinguru batean. Jarduerak, hala ere, barne eskariaren bidez eusten dio bere horretan, kontsumoak nabarmen egin baitu gora, nahiz eta inflazioak gora egin duen, eta inbertsioak aldeko joerari eutsi baitio, bultzada txikiagoarekin bada ere. Sektoreen ikuspegitik, hileko dinamismoa eraikuntzan oinarritzen da, eta zerbitzuek, berriz, enpleguaren sorrerarekin lotutako bilakaera positiboari eusten diote.

